

**11/2021 TXOSTENA, MAIATZAREN 26KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURAKOA.****XEDEA: KABLE BIDEZKO GARRAIOARI BURUZKO LEGEAREN
AURREPROIEKTUA.****I.- AURREKARIAK.**

Autonomia Estatutuaren 10.32. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari (aurrerantzean, EAE) eskumen esklusiboa esleitzen zaio honako gai hauetan: trenbideak; lehorreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioa; portuak; heliportuak eta aireportuak; eta Euskal Herriko Meteorologia Zerbitzua, betiere Konstituzioaren 149.1.20. artikuluan xedatutakoari kalterik eragin gabe.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, 11.1.i) artikuluan, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari esleitzen dizkio lurreko, itsasoko, ibaiko eta kable bidezko garraioen alorreko funtzioak eta jarduketa-eremuak (dekretu horrek sortu, ezabatu eta aldatzen baititu Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak eta finkatzen haien egitekoak eta jardun-arloak).

Ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean duten kable bidezko garraio bideen arloko eskumen esklusibo hori gauzatzean, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak erabaki du egokia eta bidezkoa dela kable bidezko garraioa arautzea, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legetik bereizitako lege-mailako arau baten bidez.

Gogoan izan behar da Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legearen aurreko aurreproiektu batean V. kapitulu gisa arautzen zela kable bidezko garraioa. Aurreproiektu horri txostena eman zion Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak osoko bilkuran (11/2019 txostena, apirilaren 17koa).

Gaur egun, Mugikortasun Jasangarriaren Legearen aurreproiektu berri bat izapidetzen ari da, eta jada jendaurreko informazio-aldian dago Garraio Plangintzaren zuzendariaren 2021eko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez (2021eko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen). Halere, arestian aipatutako aurreproiektuan ez dago kable bidezko garraioari buruzko erregulaziorik.

Hori horrela izanik, Kable bidezko Legea izapidetzeari ekin zaio Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak hala proposatua. Lege-aurreproiektua zenbait txosten eta alegazioren xede izan da, eta aipatutako Sailak horien inguruko txosten-eskabidea egin zion Batzorde honi.

Aipatu beharrekoa da aurretik jada egon dela kable bidezko garraio bideen arloko lege-aurreproiektu bat eta Batzorde honek txostena eman ziola aurreproiektu horri (otsailaren 1eko 1/2012 Txostena), nahiz eta garai hartan Administrazio Kontratazioko Aholku Batzorde zeritzon Batzorde honi.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_LEY_109719/20_08), honako agiri hauek agertzen dira, besteak beste:

- Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2020ko abenduaren 18koa, legearen aurreproiektua jendaurreko kontsulta-aldian jartzen duena, hura egin aurretik.
- Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2021eko otsailaren 5koa, aurreproiektua egiteko prozedura abiarazten duena.
- Aurreproiektuaren justifikazio-memoria, Garraio Plangintzaren zuzendariak 2021eko apirilaren 7an sinatua.
- Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2021eko apirilaren 8koa, legearen aurreproiektuaren testua aldeztu aurretik onartzen duena.
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lege Aholkularitzaren Txostena.

- Ebazpena, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, 2021eko apirilaren 26koa, 2021eko maiatzaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, legearen aurreproiektua jendaurreko informazioaren eraginpean jartzen duena.

II.- AURRETIKO GOGOETAK.

TXOSTENA EMATEKO ESKUMENA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 11. artikulua ezartzen duenez, Nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko dira.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

«27. artikulua.- Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Hauei buruz nahitaez informatzea:

1.- Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».

Xedapen-proiektua denez, eta ez denez horren xedea sektore publikoko erakundeak sortzea, edota EAEko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak erregulatzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluaekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

III.- EDUKIA.

Legearen aurreproiektuaren xedea da pertsonak kable bidez garraiatzeko diren eta ibilbide osoa EAren lurraldean egiten duten instalazioen proiektzio, eraikuntza, zerbitzuan jartzea eta ustiapena arautzea.

Aurreproiektuaren 2. artikulua honako hau biltzen du aplikazio-eremuari dagokionez: <<1. Kable bidezko garraiorako honako instalazio hauek arautuko dira lege honen bidez:

- a) *Funikularrak, baldin eta kable batek edo gehiagok errailetan zehar eramaten badituzte horien ibilgailuak, eta errailak lurrian finkatuta edota egitura finkoen gainean jarrita badaude.*
- b) *Teleferikoak, baldin eta horien ibilgailuak kable baten edo gehiagoren bidez esekita eta propulstaturik badaude, telekabina eta teleaulkiak barne hartuta.*
- c) *Teleskiak, baldin eta behar bezala ekipatutako pertsonak horretarako prestatutako pista batetik herrestan eramaten badira.*

2. Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:

- a) *igogailuak, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/33 (EB) Zuzentarauak zehaztutakoari jarraikiz, lege honen bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa salbuetsita,*
- b) *nekazaritzarako edo basogintzarako sortutako instalazioak,*
- c) *salgaiak eta berariaz horretarako izendatutako pertsonak garraiatzeko baino erabiltzen ez diren mendiko babesleku edo etxolen zerbitzurako kable bidezko garraio-instalazioak,*
- d) *in situ ekipamenduak edo ekipamendu mugikorak, soil-soilik aisialdirako diseinatuta daudenak, eta ez pertsonen garraiobide gisa.*
- e) *meatze-instalazioak edo industria-jardueretarako baliatzen diren beste in situ industria-instalazio batzuk, eta*
- f) *erabiltzaileak edo ibilgailuak uretan lekualdatzeko instalazioak.*

3. Salgaiak kable bidez garraiatzeko soilik erabiltzen diren instalazioek berariazko araudia izango dute, nahiz eta osagarri gisa lege hau ere aplikatu ahal izango zaien>>.

Lege-aurreproiektua honela dago antolatuta:

- Azalpen-zatia.
- Xedapen-zatia, hogeita hemezortzi artikulurekin, zainak lau kapitulutan antolatuta baitaude.
- Xedapen gehigarri bat.
- Lau xedapen iragankor.
- Azken xedapen bat.

Laburki, honako hau da Dekretuaren kapituluaren edukia:

- I.- Xedapen orokorrak.
- II.- Instalazioaren eta ustiapenaren administrazio-araubidea.
- III.- Instalazioak ikuskatzea eta kontrolatzea.
- IV.- Zehapen-araubidea.

IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Aurreproiektuaren II. kapituluaren barruan («*Instalazioaren eta ustiapenaren administrazio-araubidea*»), 1. atalak zerbitzu publikokotzat hartzen diren garraio publikoko instalazioak arautzen ditu, baldin eta Administrazioak zuzenean edo zeharka eraiki edo ustia baditzake, edo bestela, dagokien kontratua esleitu zaien pertsonen bidez. Bestalde, 2. atalean zerbitzu publikokotzat jo gabeko garraio publikoko instalazioak arautzen dira, eta 3. atalean, berriz, garraio pribatuko instalazioak. Bi kasuetan, baimen-araubidea bete beharko dute.

Beraz, kontratazio publikoaren eremuan eragina duten aurreproiektuaren arauak 12.-19. artikuluetan daude jasota, «*Zerbitzu publikokotzat hartzen diren garraio publikoko instalazioak*» izeneko II. kapituluko («*Instalazioaren eta ustiapenaren administrazio-araubidea*») 1. atalean eta bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen iragankorretan.

Legearen aurreproiektuaren 12. artikulua arabera, <<1. Kable bidezko garraio publikoko instalazio berriak –4. artikulua arabera zerbitzu publikokotzat hartzen direnak– ezartzeko ekimena administrazio publiko eskudunei dagokie. Edonola ere, instalazio horien titulartasuna publikoa izango da.

2. *Espedientea izapidetu aurretik, bideragarritasun-azterlan bat egin beharko da, sektore publikoko kontratazioari buruzko legerian aurreikusitako moduan.*

3. *Ekimen pribatua onartuko da baldin eta balizko emakiden bideragarritasun-azterlanak aurkezten badira, sektore publikoaren kontratazioari buruzko legerian aurreikusitako baldintzetan>>.*

Aurreproiektuaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, <<*Aurreko artikuluan jasotako instalazioak ezartzeko, ustiapen-proiektua onartu beharko da aldez aurretik, atal honetan araututako prozedurari jarraikiz betiere>>.*

Aurreproiektuaren 14. artikulua arabera, <<*1. Zerbitzu publikokotzat hartzen diren kable bidezko garraio publikoko instalazioak ezartzeko proiektuak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:*

- a) *Instalazioa beharrezkoa delako justifikazioa.*
- b) *Instalazioak ingurumenaren babesaren, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan indarrean dauden zehaztapenetara egokitzea.*
- c) *Babesgunearen eremua.*
- d) *Eraikuntza-proiektua -hala badagokio, eskumeneko teknikari gaituak idatzia eta sinatuta-, zeinak indarreko legeria teknikoan ezarritako dokumentazioa bildu beharko baitu gutxienez.*
- e) *Segurtasun-analisia eta dagokion segurtasun-txostena.*
- f) *Segurtasun-azpizistemen eta -osagaien deskribapena, baita EBren adostasun-adierazpena eta adostasunari dagozkion gainerako dokumentuak ere.*
- g) *Instalazioaren erabilera- eta ustiapen-araubideari buruzko azterlan bat, finantzaketa-modua eta zerbitzua ematean aplikatuko den tarifa-araubidea adierazita.*
- h) *Ustiapen-erregelamendua, zeinak larrialdi-egoeretarako autobabes-plana eta instalazioa mantentzeko, zaintzeko, doitzeko eta kontserbatzeko jarraibide osoak jaso beharko baititu.*
- i) *Aplikatu beharreko gainerako araudietan eskatutako gainerako dokumentazioa.*

2. *Proiektu horrek kable bidezko garraio-instalazioei aplikatu beharreko berariazko erregelamendu teknikoaren xedapenen arabera izan beharko du.*

3. *Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, nahitaezkoa den kasuetan, aplikatu beharreko ingurumen-araudian ezarritako prozeduraren arabera egingo da>>.*

Aurreproiektuaren 15. artikulua dioenez, <<1. *Zerbitzu publikokotzat hartzen diren kable bidezko garraio publikoko instalazioak ezartzeko edo horiek nabarmen aldatzeko proiektuak jendaurreko informazioaren izapidearen eraginpean egongo dira hilabetez.*

2. *Jendaurreko informazioaldi horrekin batera, instalazioak eraginpean hartzen dituen beste erakunde eta administrazio eskudun batzuen txostenak eskatuko ditu erakunde eskumendunak. Hilabete epean ez badira jasotzen eskatutako txostenak, prozedura izapidetzen jarraitu ahal izango da, kontratazio publikoaren araudian aurreikusitakoa alde batera utzi gabe>>.*

Aurreproiektuaren 16. artikuluari jarraikiz, <<1. *Administrazio eskudunak erabaki behar du 14. artikuluan aipatutako proiektua onartu behar ote den, dokumentazio osoa aurkeztu denetik zenbatzen hasita sei hilabete epean. Adierazitako epean ez bada berariazko ebazpenik eman, ezetsizat joko da. Hala ere, egoki diren errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira dagokion administrazio-organoan.*

2. *Proiektua onartzeko ebazpena emateko, instalazioa onura publiko edo gizarte-interesekotzat jo beharko da, eta okupazio-beharra -nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako-, aldi baterako okupazioa eta zor berriak ezarri edo daudenak aldatu -beharrezkoa bada- beharko dira, nahitaezko desjabetzeari buruzko legerian aurreikusitakoaren arabera. Horretarako, jabari publikokoak ez diren eta proiektua burutu ahal izateko eskuratu edo okupatu behar diren ondasun eta eskubideen zerrenda bildu beharko du proiektuak>>.*

Legearen aurreproiektuaren 17. artikulua dioenez, <<1. *Zerbitzu publikoko kable bidezko garraio-instalazioen eraikuntza eta/edo ustiapena zuzenean egin dezake administrazioak, baita zeharka ere, kasuan kasuko kontratua esleitu zaien pertsonen bitartez.*

2. *Zerbitzu publikoko kable bidezko garraio-instalazioak eraiki eta ustiatzeko kontratuak zerbitzu horiek ezarri eta kudeatzeko eskumena duen administrazioak esleituko ditu, sektore publikoko kontratazioari buruzko legeriak zehaztutako prozeduren arabera.*

3. *Obrak amaitzean, kontratista kontratua behar bezala betetzen ari dela ziurtatzeko, egiaztapen-akta egin beharko du emakida egin duen administrazioak.*

Egiaztapen-akta egiteko modua eta haren edukia administrazio-klausula zehatzen agirian xedatutakoari egokituko zaizkio.

4. Emakida egin duen administrazioak obrei buruzko egiaztapen-akta onartzeak berekin dakar obrak jendeak erabiltzen hasteko baimena; une horretan hasten da obraren berme-epea, kontzesiodunak ez beste hirugarren batzuek egin dutenean obra, bai eta ustiapen-fasea ere.

5. Zerbitzu publikokotzat hartzen diren kable bidezko garraio publikoko instalazioak ezin dira enbargatu>>.

Aurreproiektuaren 18. artikulua honako hau ezartzen du: <<1. Kontratuek ezarri behar dituzte, eraikuntza eta ustiapenekoak nahiz kable bidezko garraio-instalazioen ustiapenekoak soilik izan, kontratazioarako baldintzak eta alderdien eskubide eta betebeharrak –baita kontratuaren araubide ekonomiko eta finantzarioa ere–, eta sektore publikoko kontratazioari buruzko legerian ezarritakoa bete beharko da beti.

2. Kable bidezko garraio-instalazioen eraikuntza edo ustiapenerako sinatutako kontratuak ezin izango dira administrazio eskudunaren baimenik gabe besterendu, sektore publikoko kontratazioari buruzko legerian xedatutakoari jarraikiz>>.

Aurreproiektuaren 19. artikulua arabera, <<1. Kable bidezko garraio-instalazioen ustiapena beti aldi baterakoa izaten da eta kontratuan zehaztu behar da iraupena, proiektuan aurreikusi diren eta administrazio eskudunak onartu dituen amortizazio-epeen arabera; hala ere, inoiz ez da sektore publikoko kontratazioari buruzko legerian ezarritakoa baino luzeagoa izango.

2. Kontratuak luzatu ahal izango dira, sektore publikoko kontratuei buruzko legerian ezarritako kasuetan, baina ezin izango da aurreko paragrafoan ezarritako gehieneko epea gainditu.

3. Kable bidezko garraio-instalazioen eraikuntzaren eta ustiapenaren inguruko kontratuak azkentzeko arrazoiak dira, sektore publikoko kontratuei buruzko legerian ezarritako kasuez aparte, hasieran ezarritako epea edo, hala badagokio, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera erabakitako luzapenaren ondoriozkoa amaitzea, edo kontratua indargabetzea.

4. Kontratuaren indarraldia azkentzen denean (arrazoia edozein izanik ere), administrazio eskudunak kontratu berri bat esleituko du, kable bidezko garraio-instalazio hori ustiatzeko, sektore publikoko kontratazioari buruzko legeriari jarraikiz, salbu eta zuzenean ustiatu behar dela xedatzen bada edo hura ezabatzea gomendatzen duten arrazoiak badaude.

5. Zerbitzua emateari uzten bazaio edo hori gertatzeko hur-hurreko arriskua badago, zerbitzu horren gainean eskumena duen administrazioak larrialdi-neurri bat hartu ahal izango du: zuzeneko esleipenera jo, kontratua luzatzeko akordio formala onartu, edo operadorea zerbitzu publikoko hainbat betebeharrak eskaintzera behartu. Zerbitzu publikoko operadoreak eskubidea izango du zerbitzu publikoko hainbat betebeharrak eskaintzera behartzen duen erabakiaren kontra jotzeko. Larrialdi-neurri gisa zuzenean esleitzen den, luzatzen den edo inori ezartzen zaion zerbitzu publikoko kontratuak ezin izango du bi urteko epea gainditu.

Hala eta guztiz ere, kontratistak bere betebeharrak bete baditu, eta kontratuaren administrazio-klausulen agirian berariaz hala aurreikusita badago, administrazio kontratatzaileak kontratua berritzea erabaki ahal izango du, interes publikorako egoki diren aldaketak eginda prestazioaren baldintzetan, sektore publikoko kontratazioari buruzko legeriak ezarritakoari jarraikiz; hala ere, epe berriak ez du gaindituko araudi horretan ezarritako gehieneko epea.

6. Kable bidezko garraio-instalazioen eraikuntza edota ustiapenari buruzko kontratuak indargabetzeko kausak dira sektore publikoko kontratazioari buruzko legerian ezarritakoak, kontratistak kontratua ez betetzeagatiko iraungitzea barne.

7. Kontratuak indargabetzeak dakartzan ondorioei dagokienez, sektore publikoko kontratuen legerian xedatutakoa beteko da>>.

Transkribatutako 12.-19. artikuluan horietan jasotako araubideak lotura du obren emakida-kontratuekin eta erregulatutako zerbitzuen emakida-kontratuekin. Hurrenez hurren, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 14. artikuluan eta 247.etik 283.era arteko artikuluetan eta 15. artikuluan eta 284.etik 297.era artekoetan daude erregulatuta. Lege horren bitartez egin zen, hain zuzen, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora. Aurrerantzean, SPKL deituko diogu. Zerbitzuen emakidarako kontratu horrek zerbitzu publikoen kudeaketaren kontratazioa –aurreko araudian arautua– ordeztu du kontratazio publikoaren arloan.

Jarraian, legearen aurreproiektuaren 12.-19. artikulua aztertuko ditugu.

Aurreproiektuaren 12. artikuluan 2. Apartatuan –prestaketa-jarduerei buruzkoan–, aurreikuspenak da bideragarritasun-azterlan bat egin behar dela kable bidezko garraio publikoko instalazio berriak ezartzeko espedientea izapidetu aurretik. Aurreikuspen horrek SPKLren 247. eta 285.2 artikuluetan ezarritakoa betetzen du.

12. artikulua beraren 3. apartatua jasotzen denez, ekimen pribatua onartuko da baldin eta balizko emakiden bideragarritasun-azterlanak aurkezten badira, eta SPKLren 247.5 artikuluan aurreikusitakoa betetzen du horrek.

Aurreproiektuaren 13. artikulua, prozeduraren hasierari buruzkoak, adierazten du zerbitzu publikokotzat hartzen diren garraio publikoko instalazioak ezarri aurretik ustiapen-proiektua onartu beharko dela, hurrengo 14., 15. eta 16. artikuluetan araututako prozeduraren arabera.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostenak adierazten duen bezala, aurreproiektuaren 17. artikulua, zerbitzu publikoko kable bidezko garraio-instalazioen eraikuntza eta ustiapena arautzean, SPKLren 256. artikulua zati bat jasotzen du hirugarren eta laugarren apartatuetan; zehazki, hirugarren apartatua SPKLren 256.1 artikulua kopiatzen du, eta laugarren apartatua, berriz, SPKLren 256.4 artikulua.

Aurreproiektuaren 18. artikuluan jasota dago kontratuek kontratazioa arautzeko baldintzak finkatu behar dituztela, eta bigarren apartatua adierazten da kontratuak ezin izango direla eskualdatu administrazio eskudunaren aurretiko eta berariazko baimenik gabe, sektore publikoko kontratazioari buruzko legerian ezarritakoa betez. Horri dagokionez, aplikatzekoak izango dira SPKLren 98. artikulua –kontratistaren ondorengotza-kasuak jasotzen dituen–, eta SPKLren 214. artikulua –kontratuen lagapena arautzen duen–.

Aurreproiektuaren 19. artikulua kontratuen indarraldi eta amaieraren erregulazioa jasotzen du. Artikulu horren 1. apartatua iraupenari buruzkoa da, eta adierazten du inola ere ezingo duela gainditu sektore publikoko kontratazioari buruz legeriak ezarritako gehieneko epea. 19. artikulua 2. apartatua kontratuen luzapena aurreikusten du. Bi alderdi horiei dagokienez, SPKLren 29.6 artikulua aplikatu behar da.

Aurreproiektuaren 19. artikulua 3. apartatua kontratuak azkentzei buruzkoa da, eta edukiak SPKLren 209. artikuluan aurreikusitakoa betetzen du. Horren arabera, <<Kontratuak betetzen edo indargabetzen direlako azkenduko dira, 5. azpiatal honetan araututakoaren arabera>>.

Aurreproiektuaren 19. artikuluan 5. apartatua oso nahasgarria da. Lehenengo paragrafoa zerbitzua eteteko kasuei edo egoera hori gertatzeko berehalako arriskua dakarten kasuei buruzkoa da, eta administrazio eskudunak honako honetarako aukera izango duela aurreikusten da: <<larrialdi-neurri bat hartu ahal izango du: zuzeneko esleipenera jo, kontratua luzatzeko akordio formala onartu, edo operadorea zerbitzu publikoko hainbat betebeharrak eskaintzera behartu>>.

Dirudenez, erregulazio horretan, besteak beste, larrialdiko izapidetzea –SPKLren 120. artikuluan aurreikusia– aipatzen da. Kontuan hartu behar da Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ez dituela «esleipen-moduak» jasotzen, «esleipen-prozedurak» baizik. Azpimarratu beharrekoa da SPKLren 120. artikuluan larrialdiko izapidetzearen justifikazio bakar bat biltzen duela: soil-soilik Administrazioak berehala jardun behar duenean hondamendi-gertaeren ondorioz, arrisku larria dakarten egoeren ondorioz edo defentsa nazionalari eragiten dioten premiak direlata; beraz, zerbitzua eteteak ez du justifikatzen larrialdiko izapide hori egitea.

Bestalde, «luzatzeko akordio formala» aipamenari dagokionez, artikuluan horretako 2. apartatuan aipaturiko luzapenez gain (jada aztertu da luzapen hori), SPKLren 29.4 artikuluan azken paragrafoan aurreikusita dago kontratua luzatzeko aukera dagoela baldin eta kontratua amaitzean kontratu berria formalizatu ez bada prestazioaren jarraipena bermatzeko, gehienez ere bederatzi hilabeteko denbora-tartean. Aurreikuspen hori zerbitzuen emakidarako kontratuaren erregulazioan ere jasota dago, zehazki, SPKLren 288.a) artikuluan. Obren emakida-kontratuari dagokionez, SPKLren 278.1 artikuluan honako hau dago jasota: <<Baldintza-agirietan 29. artikuluan xedatutakoaren arabera finkatutako epeak, soilik, 270. artikuluan 3. apartatuko azken tartekian ezarritakoari jarraituz luzatu ahalko dira>>. Badirudi «luzatzeko akordio formala» kontratua arautzen duten agirietan oinarrituta ez dagoen «ad hoc» erabaki bati buruzkoa dela eta SPKLren 29.4 artikuluan adierazitakoari jarraikiz ulertu behar dela.

Bestalde, «zerbitzu publikoko hainbat betebeharrak eskaintzera behartu» delakoari dagokionez, uste dugu ez dagoela behar adina zehaztuta eta ez dagokiola baldin eta kontratua arautzen duten agirietan jasota ez badago.

Aurreproiektuaren 19. artikuluan 5. apartatuaren bigarren paragrafoak honako hau aipatzen du: «berritzea (...) aldatetak eginda prestazioaren baldintzetan». Kontratua aldatzea edo kontratua aldatuta luzatzea adierazi nahi dela ulertzen da,

eta hori SPKLren 203.-207. artikuluetan jasotako erregulazio orokorraren arabera interpretatu beharko da; zehazki, obren emakida-kontratuaren erregulazioari dagokionez (SPKLren 255., 262. eta 270. artikuluetan bildua), eta zerbitzuen emakida-kontratuaren erregulazioari dagokionez (SPKLren 290. artikuluan bildua). Bi kasuetan, agirietan eta kontratuei buruzko legerian oinarritu beharko da.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eraginpean uzten da aurreproiektuaren 19. artikuluko 5. apartatua kentzeko aukera eta komenigarritasuna.

Aurreproiektuaren 19. artikuluan 6. apartatua kontratuak indargabetzeko kausei buruzkoa da, eta PKLren 211. artikuluan jasotako erregulazio orokorrari jarraikiz interpretatu behar da; zehazki, obren emakida-kontratuaren erregulazioari dagokionez (SPKLren 279. artikuluan bildua), eta zerbitzuen emakida-kontratuaren erregulazioari dagokionez (SPKLren 294. artikuluan bildua).

Aurreproiektuaren 19. artikuluan 7. apartatuak sektore publikoko kontratazioari buruzko legerian kontratuak indargabetzearen ondorioei buruz xedatutakoa nabarmentzen du. SPKLk 213. artikuluan arautzen ditu ondorio horiek, orokorrean; zehazki, 280. Artikuluan obren emakida-kontratuaren erregulazioari dagokionez, eta 295. artikuluan zerbitzuen emakida-kontratuaren erregulazioari dagokionez.

Aurreproiektuaren bigarren xedapen iragankorraren arabera, <<1. *Eusko Jaurlaritzaren posizioa hartuko dute, emakida egin behar duen erakunde gisa, administrazio-emakiden mende dauden edo egon diren hiri-esparruko zerbitzu publikoko igogailuak dituzten udalerrietako Udalek.*

2. *Emakida horiek indarrean jarraituko dute emakidaren kontratuan ezarritakoaren arabera, eta administrazio-kontratuak arautzen dituzten legeen eta lege honen III. eta IV. kapituluetan ezarritako ikuskatze- eta zigortze-araubidearen mende.*

[...]>>.

Aurreproiektuaren hirugarren xedapen iragankorraren arabera, <<1. *Eusko Jaurlaritzaren posizioa hartuko dute, emakida egin behar duen erakunde gisa, 50.000 biztanle baino gehiagoko Udalek, euren udalerrietan administrazio-emakiden mende dauden edo egon diren hiri-esparruko zerbitzu publikoko igogailuak badituzte eta lege honen 2.1. artikuluan jasota badaude.*

2. *Emakida horiek indarrean egongo dira ezarritako iraupena bukatu arte, eta lege honetan ezarritako araubide juridikoaren menpean egongo dira».*

Bigarren xedapen iragankorraren edukia eta hirugarren xedapen iragankorraren edukia dagozkie, hurrenez hurren, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Lege Aurreproiektuaren hirugarren xedapen iragankorraren edukiari eta bigarren xedapen iragankorraren edukiari; arestian aipaturiko lege-aurreproiektuari txostena eman zion Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek osoko bilkuran (apirilaren 17ko 11/2019 Txostena). Bi xedapenetan «*Eusko Jaurlaritza*» aipamenaren ordean «*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa*» jartzea proposatzen da.

Aurreproiektuaren laugarren xedapen iragankorraren arabera, <<*Lege hau indarrean hasten denean izapidetzen ari diren baimen- eta esleipen-espedienteak lege honetan ezarritakoaren arabera ebatziko dira*>>.

Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak egindako lege-aurreproiektuaren memoria ekonomikoari jarraikiz, bigarren xedapen iragankorraren eraginpeko instalazioetako batzuen emakidak indarrean daude; beste instalazio batzuen emakida, ordea, iraungita dago. Beraz, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak apirilaren 17ko osoko bilkuran emandako 11/2019 txostenean adierazitakoa berresten da; hala, indarrean dauden emakiden kasuan, Administrazio kontratatzailearen posizio juridikoa eskualdatzeko orduan, aintzat hartu beharko da, hala badagokio, emakida formalizatu zuten agirietan ezarritakoa.

Halaber, 11/2019 txostenean adierazitako honako alderdi hau ere berresten da: edozein kasutan, nola indarreko emakidetan hala iraungitakoen kasuan, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuaren bitartez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bateginean araututakoa bete beharko da subrogazio-hitzarmenen izapideetan.

Gomendagarritzat jotzen da aurreproiektuaren edukia bi hauek argitasun handiagoz bereizteko moduan jartzen saiatzea: batetik, obren emakidari dagokion erregulazioa, eta, bestetik, zerbitzuen emakidari dagokiona.

Halere, gai formala izanik eta kontuan izanik ez dela Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honen eskumenari buruzkoa, baizik eta kontratazio publikoaren berezko gaii buruzkoa soilik, aurreproiektuaren 16. eta 18. artikuluetako tituluei dagokienez ikusten da aurkibidean agertzen direnak ez datozela bat xedapen-zatian agertzen direnekin.

V.- ONDORIOAK.

Legearen aurreproiektuaren edukiak aintzat hartzen du sektore publikoko kontratazioaren legeria, arlo horri dagozkion analizatutako alderdiei dagokienez; izan ere, oro har, lege horren mende jartzeko formula erabiltzen du.

Horregatik guztiagatik eta txosten honetan bildutako oharrek aintzat hartuko dituzuelakoan, Kable bidezko Garraioari buruzko legearen aurreproiektuaren aldeko irizpena ematen du Batzordeak.